Bertsolaritzaren baliapena

Iztuetak, XIX mendearen hasieretan gure dantza eta doinuak ez ezik, berekin batean herri literatura baliatzea ekarri zuen eta herri literaturaren motetatik berezien bertsolaritza. Berari zor dizkiogu bertsolaritzaren lehenengo berririk zehatzenak. Hala ere, gure mende hontan oraindik bertsolaritza despreziaturik eduki dute kultur munduko ekintzetan ari ziren gizonetarik askok. Hauentzat, sagardotegietako literatura merke eta mordoilloa baizik ez zen bertsolaritza.

Izan ere, bizitzako gogoetatik eta lagunarteko ekintzetatik soilik hezituak bai ziren jakintza gaietan erudizio klasikoa eskatzen zen garaian, eta askoren buruan ezin sartu bizitzaren eskolatik ere badela zer ikasirik gizonak har dezaken jarreraren arabera.

Dena dela, garai bateko gizon ospetsuak (eta gaur oraindik ere bada holakorik) ez zuten asko espero bertsolaritzatik eta bertsolariak heurak beren ekintzaz gutietsirik, akonplexaturik, bestek aitortua onartzen zuten. Baina, bada zerbait jakintzaz ere neurkaitza zaiguna, bihotza. Zeren, sentipenak ez bai dira neurtzen ezta elektrokardiograma berarekin ere. Bestela, zer da poesiaren zentzua?

Baina, besteak beste, bertsolariak etziren lotsatzen beren izakeraz eta plazetan ere lasai aitortuko zuten beren hizneurtuzko arteak nondikakoak zituen eskolak. Pello Errotak eta Udarregik ongi adierazi zuten uste hori Hondarribian izan zuten saio batean. Pelloren bertsoa hala izan zen:

Berez kupi gaitzala
guzion Jabiak,
ta eman ditzagula
abilidadiak;
orain astera goaz
predikadoriak,
beiñe kolejiuan
ibili gabiak.

Eta, Udarregik era hontara ihardetsi zion:

Asiera eman du
Pello Errotariak,
batek aina eginkizun
badaukagu biak;
aitortuko ditugu,
publikoki egiak:
gure kolejiauk,
sagardotegiak.

Bertsolaritzaren kontra gogorren aritu zenetako bat izan zen Karmelo Etxegarai historiagilea; baina gezurra badirudi ere, bere jarraitzailerik onenetako bat izan zen bertsolaritza goraipatu eta bere baliapenak agertu zituenetako bat, Gregorio Mújika.

Hain zuzen ere, aurten betetzen da Gregorio Mujikaren mendeurrena eta horregatik eskaini nion irailaren 27an artikulu bat orrialde hontan, gazterik hil zen jakitun eta langile honi.

Irakurgarria da 1919an Pello Errotaren heriotza ondorean G. Mujikak idatzi zuen artikulua. Ordurarte apenaz idatzi zen holakorik pertsona eskolatuegandik, eta Gregorioren ospeak bere itzala zabaldu zuen euskal kultur munduan, bertsolaritza errespetatzeko eta begirapena irabazteko. Hala ere, ezin gindezka ahaztu D'Abbadie jaunakin. Honek, bere babespean antolatzen zituen Euskal Jaietan, poesia idatziez aparte, desafiozko norgehiagokako bertsolari sariak jartzen zituenez.

"Kirikiño"k (E. Bustintza) ordea, **Ibaizabal** zeritzan aldizkaria sortzeaz, bere seigarren zenbakian, "Bertso-batzaldiak" zeritzan saria jarri zuen, bertso idatzietzat: "Euskalerrian bertsoetara dagoan zaletasuna, ta **Ibaizabal**-ek, urten dabenetik ona, alde guztietatik artu dabezan bertso ugariak kontuan arturik, erabagi dogu batzaldiak egitea Euskalerriko bertsogiñen artean". Aldez aurretik, bere deian, zuzendaritzak jarritako gai bati buruz egin beharrezkoak ziren eta bigarren deian "Tanbolinteruen bizimodua" jarri zen gaitzat, eta

Gregorio Mujika izan zen irabazle, beste batekin berdindurik. Orduan, Gregoriok, hogei urte baizik ez zituen, eta **Ibaizabal** aldizkariaren orrialdeetan geroztik beste zenbait bertso publikatzen jarraitu zuen. Beraz, gazterik hartua zuen bertsotarako zaletasuna. Horregatik, ez zen harritzekoa Pello Errotaren heriotzaz artikulu hara egitea.

Artikulu hortan zionez, Euskal Herrian ez omen zen plazarik Pello Errotaren bertsoak entzun ez zirenik. Baina, baita Udaletxe, Diputazio eta saloietan ere kantatzen omen zuen. Behar bada, lehen aldiz bertsolaritza saloietara eraman zuena Pello Errota izango zen. Ojanguren fotografoak esaten zidanez,

Eibarko Salon Teatro zelakoan beste pare bat bertsolarikin desafiozkoan aritu zelarik, eten gabeko jardunaldia izan omen zen eta, azkena jo baino lehen, goizaldeko lauretan saloiko enpresarioak kalera atera behar izan zituela eta kalean ere segi beren saioari. Saloietan ere kantatzen zuen lekukotasun hori Gregorio Mujika berak ere ematen digu.

Gainera, bere ospearen hedakundea hain handia zenez, 1895ean Argentinara eraman zuten eta han ere plazetan ez ezik Buenos Aires eta Tandil hirietako saloietan ere Kantatu zuen.

Bertsolaritzaren literatur mota ikertu eta bere erregelak zientifikoki jarri zituenetan lehena Manuel Lekuona dugu. Eusko Ikaskuntzak 1930ean Bergaran eratu zuen Kongresoan aurkeztu zuen txosten hura baino lehenago **Métrica vasca** (1918) zeritzan lanarekin hasia eta gero **Literatura oral euskérica**-rekin jarraitua. Hau berau, osatuago emango zuen **Literatura oral vasca** izenez Auñamendi Argitaldariak.

Baina, Gregorio Mujika, tarte hortan, pertsonajerik aipagarrienetako bat dugu. Arestian agertu dugunaz gainera, esan beharra dugu, Gregorio Mujika, **Permando Amezketarra deritzan liburua argitaratu ondorean (lehen argitalpena 1925ean** izan zuen eta bigarrena 1927ean) bertso paperak biltzen ari zela, bertsolaritzaz antologia handi bat osatu nahirik. Bere gordailua lagungarri izan zaio Antonio Zavalari Auspoa sailaren ekintza ederrerako.

Dena dela, historia egitean kontutan hartzekoak ditugu puntu horiek.

Juan SAN MARTIN

Con el romanticismo recobraron su valor las literaturas populares de Europa, pero a pesar de los trabajos de recopilación folklórica de Iztueta, a comienzos del siglo XIX, que dio interesantes noticias del bersolarismo con la recogida de algunas muestras, el bersolarismo siguió un tanto marginado, considerándosele como un subproducto literario. Todavía a primeros de nuestro siglo era despreciado por altas personalidades de la cultura vasca, entre ellos el historiador y cronista de las provincias vascongadas don Carmelo de Echegaray. Las corrientes del purismo lingüístico (mejor dicho falso purismo) tampoco beneficiaron a la literatura popular y el bersolari fue víctima de burlas y chanzas.

Sin embargo, hubo algunas excepciones. Antoine D'Abbadie les tuvo en alguna consideración en las Fiestas Euskaras al convocar las contiendas de desafío, como era la primitiva modalidad. Evaristo Bustinza "Kirikiño", desde el semanario ***Ibaizabal*** *que le correspondió dirigir, en 1902, convocó los premios para versos escritos en el género popular del bersolarismo por la aceptación que tenían en el pueblo euskaldun. Aquellas convocatorias fueron quincenales y se hacían sobre tema impuesto. En el segundo concurso el ganador fue Gregorio de Mújika, a la edad de veinte años. Precisamente quien luego sería seguidor de C. de Echegaray y su propio padre Serapio en temas de historia. Por otra parte, Gregorio de Mújika recopiló el anecdotario de Fernando el de Amezqueta (Fernando Bengoechea) quien en vida fue renombrado bersolari, según las noticias de Iztueta. Tr- la publicación de Fernando Amezketarra, en 1925, Gregorio de Mújika dedicó parte de sus actividades a la recopilación de versos con la idea de confeccionar una antología, pero falleció aún joven, en 1931, sin realizar sus propósitos. Parte de aquel material, si no la totalidad, ha sido aprovechada por la diligente labor de A. Zavala en la colección Auspoa.*

Estos datos los considero de primordial interés para hilvanar la historia del bersolarismo.

Y, la consideración de Gregorio de Mújika a este género de la literatura popular es para tener muy en cuenta; sus criterios y conocimientos sobre el tema se pueden deducir de sus colaboraciones en ***Ibaizabal*** *en 1902, cuando aún era un estudiante, y de la semblanza escrita a la muerte de Pello Errota, en 1919, popularísimo vate que llevó el bersolarismo de las sidrerías a los salones.*

Muy próximos siguieron los criterios técnicos de valoración por los estudios realizados por Manuel de Lecuona, que inició con Métrica vasca, en 1918, para seguir con el informe presentado al Congreso de Vergara en 1930 y culminar con la obra ***Literatura oral euskérica*** *que vio la luz en 1935.*

"Gabonetako ikuskizuna"-ren mendehurrena

Hirurehun urte eman da Pedro Ignazio Barrutia jaio zenetik. Eta tarte honetan ezer gutxi aurreratu da aramaioarraren bizitzari buruzko ikerpenetan. Obrari dagokionez, berriz, hobeto joan dira lorpenak. Azkenengo urtean, baina, beste zenbait aurrerapen egin da Barrutiaren testuingurua aztertzean. Nolanahi ere, oraindik ba da nahiko lan.

Aramaion jaio zen Pedro Ignazio 1682.ko Uztailaren 3.an eta 1759.ko Urriaren 5.ean hil zen Arrasaten, bere bizitzarik gehiena azken hiri honetan eman ondoren. Bertako eskribaua izan zen 1711.z geroztik, lanpostu horretan berrogeitabi urtetan iraun zuelarik.

Urte hoietan Pedro Ignaziok antzerki lan bat idatzi zuen, Gabon inguruetan antzeztua izateko. Obra hau Arrasaten emateko idatzi ei zuen baina oraindik ez dakigu inoiz antzeztua izan zen. Udaletxeko artxibategian ordu asko sartu arren ez dut orain arte xehetasun hau aurkitu ahal izan.

1897.an Juan Karlos Gerrak Migel Bigurriren liburutegian aurkitutako Barrutiaren orijinalaren kopia bat Resurrección Maria de Azkue-ri bialdu zion honek "Euskalzale" aldizkarian argitaratzeko. Baita Azkuek honela egin ere, "Gabon gaberako ikuskizuna" titulupean. Barrutiaren orijinalak "Acto para la Noche Buena" zeukan izena.

Idatzia izan zen garaiari begira, Barrutiarena Hego Euskal Herrian euskaraz idatzita izan diren antzerki lanen arteko zaharrena dugu. Honek, berez, aparteko meriturik ematen dio aramaioarraren obrari. Posible al litzateke zaharragorik izatea? Jakina baietz. Baina hau frogatu ahal izateko artxibategi nahiz liburutegietako ahapaldietan egin beharreko bilakuntzak jarraitu beharko luke.

Nolanahi ere, aurkikuntza egingo balitz ez litzateke Barrutiaren lana bere balorean txikitua izango, zahartasunaz aparte baitu beste merituk ere.

Zenbait ikerlek Barrutiarena gaitzat haru dute, obraren bertsoetan goi mailako balorea ikusten dela aitortzen dutelarik. Honela dio Mitxelenak: **Acto para la Noche Buena es un auto breve y sencillo que no está lejos de ser una de las mejores piezas del teatro vasco, y sin duda lo es en su género.** Ibon Sarasolaren ustez, **Ikusmolde hauek** (Barrutiaren obrarenak) **ez dira Europako teatrogintzan gure mendea arte agertzen, eta ez dute euskal teatro osoan kiderik.**

Ikuslegoak Barrutiaren lana azter dezakeen Oihartzungo Intxisu taldeak eramango du antzokietara "Gabonetako Ikuskizuna". Eusko Jaurlaritzak babesturiko muntaketa berezi batetan oinarriturik, talde honek Euskal Herriko zenbait herritan eskainiko du antzezpena. Ahalik eta hedapenik gehien euki dezan Araba, eta Gipuzkoako Foru Aldundiek laguntza berezirik eman dute. Duela aste pare bat Intxisuk gertu duen antzezpenaren saiakera orokorra ikusi ahal izan nuen Oihartzunen. Eta biziki gustatu zitzaidala aitortu behar dut. Muntaketa eder bat lortu dute. Dena dela, utz zaidazue, oihartzuarrok, aholku txiki bat ematea: dakizuenez, Barrutiaren euskara nahiko lokalista da eta –gainera– arkaismoz betea, bere aintzintasunaren arauera. Zeuek esanda dakit zail xamarra izan zaizuela obraren esanahia ulertzea. Bada, entzuleari berbera gertatuko zaiola pentsatu behar duzue. Ahozkatzea zaindu behar dela euki behar duzue kontutan, bestela ikusleak antzezpenaren haia gal baitezake. Ez duzue ahaztu behar ikuslegoaren gehienak Barrutiarenak nondik jotzen duen ez dakienik. Hauxe da, ene ustez, antzezpenak euki dezakeen zailtasunik nabariena. Hau gainditux gero arrakasta ziurtzat eman dezakezue.

Datorren larunbatean Euskaltzaindiak hileroko batzarra ospatuko du Aramaion, goizeko saio batetan. Arratsaldez, Batzar Idekia izango da Udaletxeko Areto Nagusian, bertan Barrutiaren bizitza eta lana azalduko direlarik. Jarraian, Intxisu taldeak lehen aldiz antzeztuko du "Gabonetako Ikuskizuna", euskal probintzietan zehar egingo den zirkuitoari hasiera ematen zaiolarik.

Araban jaiotako euskal idazlerik haundienetako bati gorazarrea egin nahi zaiolarik, Aramaiora gaurregungo kultur gizon asko bilduko da datorren larunbatean. Bidezko omenaldia helburu bakar batez, hots, euskal kulturaren eredu bikain bat plazaratzearena.

Josemari VELEZ DE MENDIZABAL

El próximo sábado se tributará un homenaje al escritor alavés Pedro Ignacio de Barrutia, por cumplirse durante el presente año el tercer centenario de su nacimiento. El acto tendrá lugar en Aramaiona, pueblo natal del mencionado escritor, autor de la obra teatral más antigua que se conoce escrita en idioma vasco en las provincias del sur de nuestro país. "Acto para la Noche Buena" es una pieza en verso que se escribió para ser representada en Mondragón, de donde fue escribano Barrutia desde 1711 a 1753. Aun a pesar de los continuados intentos realizados, no se ha podido averiguar hasta la fecha si llegó a representarse en su día.

Cuando sí lo va a ser es a partir del día 19 por el grupo Intxisu de Oihartzun, que ha sabido preparar una escenificación ciertamente atractiva, y que llegará al público en la medida que el lenguaje localista y –en algunos pasajes– arcaico en que está escrita la obra sea asimilado por aquél.

A la reunión mensual de la Real Academia de la Lengua Vasca a celebrarse por la mañana del día señalado, seguirá por la tarde un acto cultural al que podrán asistir todos los interesados en el tema, y en el que se tratará sobre la vida y obra de Barrutia, producción ciertamente exigua, ya que se limita a la mencionada obra teatral.

Pero al mérito de ser la primera en su género, "Acto para la Noche Buena" añade el que valoran positivamente el ingenuo y buen hacer de Barrutia. Estudiosos del teatro vasco no han regateado adjetivos laudatorios a la hora de analizar la obra, aun a pesar de que al ser descubierta no se le dio excesiva importancia, alegando profusión de erderismos.

Al anochecer del sábado se repondrá la obra que se pretende viaje a través de los teatros de Euskal Herria. Será esta gira, sin duda, el homenaje más íntimo que el pueblo tribute a este escritor nacido alavés, hito en la historia de la literatura vasca.